

A blue-tinted photograph of a person holding a camera in a barn with sheep. The person is on the left, holding a camera up to take a picture. Several sheep are on the right, looking towards the camera. The floor is covered in straw.

Hezkuntza eskaintza 2023-24 ikasturtea

Uharteko Arte
Garaikideko Zentroa

||
Huarte

ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORANEO

“Eskola ez da arte-zentro bat, baina bai arte-sorkuntzarako gune bat.”

Clara Boj

Uharte Zentroak arreta berezia jartzten du hezkuntza-komunitatea artistikoarekin lotzeko prozesuak sortzen, aztertu beharreko hezkuntza-aukera berriak irekitzea ekarriko duen elkarrikitza eraldatzaile batetik abiatuta.

Ikastaro hau berrikuntza batzuekin hasiko dugu, harremanak izateko eta sarean jakintzak, baliabideak eta esperientziak sortzeko beste modu batzuk aztertzeko.

Komunitate gero eta indartsuago eta osasuntsuago baten parte garena sentitzen dugu, eta komunitate horrekin ikusarazi nahi dugu gure burua, batzen gaituen horretatik guztitik abiatuta.

Udazkenean, irakasleentzako prestakuntza eta topaketa jardunaldi batzuetara gonbidatzen zaituztegu, “*Etchez etxe. Artea eta hezkuntza Nafarroan*” izenburupean, irakasleekin lan egiteko prozesu ireki berri bati ekin nahi dio. Jardunaldiak Iruñeko ILZrekin eta NUPeko EDARTE ikerketa-taldearekin lankidetzan diseinatuta daude, eta Madrilgo eta Valentziako taileristak eta hizlariak izango dira.

“A3-hezkuntza-proiektua” programaren zazpigarren edizioarekin jarraituko dugu, beste era bateko jakintza eta harremanetara irekitzea espero dugun ibilbide berriak estreinatuz. Matematika, pedagogia feminista edo Hazitegia edo Uholdeak programak izango dira ikasturte honetako proiektuetarako inspirazio iturri. Ildo berri horien artean “Neure Irudikoz - A mi imagen” nabarmendu behar da, joan den ikasturtean Skolae-rekin lankidetzan hasitako lanari jarraipena emateko, 50 irakasle baino gehiagok parte hartu baitzuten.

Aspalditik gertatzen ari den zerbait ere ofizialdu nahi dugu, hots, edozein irakasleri ematen zaion aholkularitza. Artearekin nolabait lotutako hezkuntza-proiektu bat baduzu eta erreferenteak, ideiak edo, besterik gabe, hitz egiteko premia baduzu, gogo handia dugu entzuteko, laguntzeko eta beste prozesu batzuetatik ikasteko, gurekin harremanetan jar zaitez eta nola egin ikusiko dugu.

Itxaropen onak ditugu ikasturte honetarako, eta hasteko gogo handia dugu.

A3

Hezkuntza formalaren barneko edozein hezkuntza mailalara zabalik dagoen deialdi irekia da, eta, horren bidez, ezagutza-trukea sortu nahi da hezkuntza-eremuaren eta tokiko artearen artean, biak aberastea ahalbidetzeko.

Gure lurraldearekin etengabeko harremanean dagoen sorkuntza-, ekoizpen- eta esperimentazio-zentro moduan, eskolekin hezkuntza-proiektuak sortzea ahalbidetu nahi dugu, tokiko artistekin lankidetzan arituz.

NORENTZAT

Ondokoa lortu nahi duten Haur, Lehen, Bigarren Hezkuntzako edo Batxilergo irakasleentzat:

- Beren curriculum edukiei arte garaikidetik begirada bat ematea.
- Esperientzia estetiko bat bizitzea, erakunde artistiko batekin elkarlanean.
- ezagutzara hurbiltzeko eta hura eraikitzeko beste modu batzuk ikertzea.

ZER ESKAINTZEN DA

Proiektu bat garatzea, talde bakoitzarekin 4 lan-saio izango dituen, eta proposatutako lau ildoen barruan gai desberdinak landu daitezke.

Aukeratutako ardatz tematikoaren barruan, parte hartzen duen irakasle bakoitzarekin aldezturik adostuko dira beren testuingururako eta interesetarako egokienak diren helburu espezifikoak, eta hortik hasiko gara proposamena diseinatzen.

Lau gai generikoren artean aukeratu ahal izango da:

- a. Artea eta Matematika, NUPekin lankidetzan, [RSME 24](#)ren esparruan. Proiektuak diseinatuko ditugu **Artea eta Matematika** erlazionatzen dituzten heinean.
- b. Hazitegia programa, [Jorge Oteiza Museo](#)arekin lankidetzan. [Maite Vélaz](#)en “Una gran compañía” proiektua. **Bolumena, gorputza, elkarrizketa edo topaketa** bezalako kontzeptuak, harremanetan jarriz.
- c. *Neure Irudikoz / A mi imagen*, joan den ikasturtean [Skolae](#)-rekin lankidetzan egindako proiektuaren jarraipena. **Ikusizko kultura** identitateak osatzeko.
- d. Programa Uholdeak. Audio-lab kolektiboaren ([Xabier Erkizia](#), Luca Rullo eta Iñigo Telletxea) *bat bitan. Notas, borrones, partituras y otras escrituras al oído*, proiektua. **Partituraren** ideia hainbat sormen-prozesutatik begiratuta.

Proiektu guztiek taldeko 4 lan-saio dituzte:

- Lehen saioa irakasle eta Uharte Zentroko hezkuntza-taldearen arteko bilera da. Bertan, proiektuaren helburu zehatzak eta hurrengo saioen datak ezarriko dira. Kasuz kasu aztertuko da formatua, talde bakoitzaren errealitatera egokitzekotan.
- Ikasgelan saio bat Uharte Zentroko hezitzailearen eskutik. Bertan gaia, proposamena edo prozesua erakutsiko zaie ikasleei, irudiak irakurriz, ekintza edo tailer txiki bat eginez.
- Uharte Zentroan saio bat, proiekturako aukeraturako bertako artista baten eskutik. Saio hau ikastetxean egin ahal izango da, beharrezkoa izanez gero.
- Azken saio bat ikasgelan, kasu bakoitzaren arabera, taldeak proiektuarekin jarraitzea edo ez planteatzeko.

IZEN EMATEA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Izen emateko epea: irailaren 4tik urriaren 2ra, Uharte Zentroaren webgunearen bidez.

Taldeak honako irizpide hauen arabera hautatuko dira:

- Lehentasuna izango dute aurreko edizioan, 2022-23 ikasturtean, parte hartu EZ duten irakasleek.
- Izena emateko ordena eta formularioa behar bezala betetzea.
- Ezin izango du ikastetxe bakoitzeko maila bat baino gehiagok parte hartu.
- Ez dira onartuko ikastetxe bakoitzeko lau talde baino gehiago.

Izena ematea Uharte Zentroko webgunean aurkitu daitekeen formularioaren bidez egin beharko da. <https://www.centrohuarte.es/eu/a3-izen-ematea-inscripcion>

Jasotako eskaera guztiei mezu elektronikoa bat bidaliko zaie urriaren 13a baino lehen.

Argibide gehiago gure webgunean edo educacion@centrohuarte.es helbidean.

Aurreko ikasturteko A3 proiektuak ikusi nahi badituzu: <https://www.centrohuarte.es/eu/a3-hezkuntza-proiektua/>

“Etxez etxe. Artea eta hezkuntza Nafarroan”

Nafarroan arte eta hezkuntzan interesa duten irakasleentzako eta pertsonentzako jardunaldiak.

2023ko urriaren 20 eta 21ean, Uhartan

Iruñeko ILZrekin eta Edarterekin (NUPeko ikerketa-taldea) lankidetzan, prestakuntza- eta topaketa-jardunaldi hauek diseinatu ditugu, elkarrekin bidaia bat hasteko aukera markatzeko. Prestakuntzan, hausnarketan eta gure hezkuntza-prozesuen, gure profesionalen eta haien lanaren ondoriozko esperientzien balorizazioan oinarrituta sendotuko gaituen bat.

Nafarroan jardunean dauden irakasleen partaidetza izango dugu, eta esperientzia propioak partekatuzera gonbidatu ditugu, jakintzak ins-

piratzeko eta konektatzeko. Era berean, Clara Boj, Diego Díaz, Clara Megías eta Amaia Arriaga profesionalak gonbidatu ditugu askotariko baliabideak eskain diezazkiguten hitzaldi eta tailerretan, eguneroko irakaskuntzan praktikoki baliagarri izatea espero baitugu.

Azken batean, jardunaldi batzuk pentsatu ditugu gure burua kolektibo, sare eta agentzia talde gisa ezagutzeko, elkarrekin proiektatu, sortu eta lagundu, entzun eta pentsatu, elkarrekin imajinatu.

NORENTZAT

Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako edo hezkuntza ez-formaleko irakasleei, arte-hezkuntzan interesa dutenei eta honako hauek nahi dituztenei:

- Gure eguneroko lanean lagunduko digun prestakuntza- eta hausnarketa-gune batez gozatzea.
- Gure komunitatean gertatzen diren hezkuntza artistikoko prozesuak ikusaraztea/ezagutzea.
- Arte-hezkuntzaren arloan elkarren arteko ezagutza- eta esperientzia-sare bat sortzea.

PROGRAMA

Programari buruzko informazio guztia [esteka honetan](#).

IZEN EMATEA

Izena emateko epea: 2023ko irailaren 11tik 30era.

Inskripzioa honako hauen bidez egin behar da:

- Jardunean dagoen irakaslea bazara, Iruñeko ILZren bidez, [esteka honetan](#).
- Interesatuta bazaude baina jarduneko irakaslea ez bazara, bete formulario hau: <https://www.centrohuarte.es/tresnaka-izena-eman>

Ikastaroa Iruñeko ILZko irakasleentzako prestakuntza-eskaintzaren parte izango da. Laster aterako da deialdia webgunean.



TRESNAKA

Hezkuntza-tresna

www.tresnaka.net

TRESNAKA Uharteko Arte Garaikideko Zentroarekin lotutako artisten sorkuntza-prozesuak biltzen dituen proiektua da, arte, kultura eta hezkuntzaren esparruan hedatzeko. Web bizia da, eta eduki berriak gehitzen zaizkio etengabe.

Helburua bikoitza da. Batetik, publiko espezializatuaren eta publiko orokorraren artean Uharteko Zentroarekin lotura zuzena duten sortzaileen lana ezagutaraztea. Eta, bestetik, **tresna didaktiko bat sortzea hezkuntzako profesionalen zerbitzura, arreta prozesu artistiko garaikideen balio pedagogikoan jarriko duena.**

Tresna honen bidez, ezagutza-sare bat sortzen ari gara hezkuntzaren eta artearen artean. Prozesuak eta metodologiak, gaiak eta interesak partekatzen dituzten eta gizartearen zerbitzura dauden jakintza berriak sortuz berrelikatzen diren bi ezagutza-gune.

Arte- eta hezkuntza-eragileekin lankidetzan aritzeko prozesu ireki baten bidez garatu da proiektua. 2020az geroztik, Nafarroako hainbat hezkuntza-proiektutan lan egiteko tresna da, irakasleei prestakuntza emanaz eta Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Sailarekin lankidetzan arituz.

KANPOKO HEZKUNTZA PROIEKTUTARAKO AHOLKULARITZA

Uharte Zentroko hezkuntza-taldeak urteak daramatza programa propioei lotutako hezkuntza-proiektuak tutorizatzen. Irakasle askok zalantzazko uneak eta hausnarketak partekatu dituzte gurekin, gure sareko lana elikatzeko.

Hezkuntza-proiektu bat baduzu eta artearekin lotu edo estrategia artistiko garaikideetatik bideratu nahi duzuna eta aholkularitza behar baduzu:

- Zure proiektua artista garaikideen lanarekin konektatzeko.
- Gai edo prozesu bati buruzko erreferenteak lortzeko.
- Proiektua desblokeatzeko edo bideratzeko estrategiak aurkitzeko.
- Beldurrak edo zalantzak partekatzeko.

Idatzi ezazu email bat educacion@centrohuarte.es helbidera eta ikusiko dugu elkar laguntzeko modua.

